



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Mundakako olatua "natura eta kultur" ondare izendatzea eskatu dabe Batzar Nagusiek

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordeak aho batez onartu dau gaur Talde Popularrak aurkeztu dauen arauz besteko proposamen bat, Mundakako ezkerreko olatua eta Urdaibaiko surf lekua “natura eta kultur” ondare izendatuak izan daitezkan. PP-k eskaerea egin dau, inplikauta dagozan erakundeek, eta horreen artean Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza, Mundakako Udala eta Urdaibaiko Patronatua aitatu ditu, akzidente natural hori “babesteko legezko modurik onena” aztertu eta “etorkizuneko belaunaldietarako behar dan moduan kontserbetea” bermatu daien.

Batzarretako talde guztiak, baktxa bere ñabardurakaz, Mundakako “barrea”, surf zaleen peregrinazino lekua, babestearen alde agertu dira. Arturo Aldecoak (PP) adierazo dauenez, Urdaibaiko Biosfera barruan dagoan inguru natural hori kontserbetea oso garrantzitsua da, surf zaleen artean daukan erakargarritasuna dala eta. “Gure herriaren oso irudi positiboa emoten dauen kirol modernoa da”.

Ordezkarri popularrak adierazo dauenez, kostaldeko gune batzuetan esku hartu aurretik azterlanak egiten diran arren, esku-hartze horreek, batzuetan, ondorioak daukiez, Donostiako Zurriolako edo Kontxako hondartzatan gertatu diranak, adibidez, “marea goian dagoanean desagertu egiten diralako”. Ondorio horreek larriagoak izan daitezke klimatologiaren ondoreak kontuan izaten badoguz. Mundakaren kasuan, beharbada ziklogenesiak eta haize eta olatu indartsuek eragin negatiboa izan dabe olatuan. “Orain urte batzuk gertatu zan, hainbat arrazoi zirala eta olatua desagertu zanean”, esan dau. Holan, Aldecoak esan dau akzidente natural hori kontserbetako bide “hoberena” erakundeen arteko koordinazinoa dala.

Bizkaiko Ahal Dugu taldeari jagokonez, talde horretako ordezkariak, inguru haretan bertan Laidako hondartzako hareatza berreskuratzeko Kostako Demarkazinoak udabarrian egin ebazan lanak zirala eta, Mundakako Surf Taldeak jende aurrera kaleratu eban testua irakurtzera mugatu dira. Obra hareek ikusita, surf taldeak obrak geratzea eskatzen eban, –euren eretxiz– “ondorio posibleak aztertu barik egozalako”. Euren testuan “informazino eta ingurumen azterlan faltea” salatzen eben, eta baita laneko plana ez betetea be, harea “itsasertzetik 20 metrora” ateraten ebelako, gitxieneko frontea “100 metrokoa” zala ezarri zan arren.

EH Bilduko David Lopategik, inguru horretan klimaren aldaketak sortzen dituan eta estuarioan aldaketak eragiten dituen “fenomeno kontrolau ezinak” gertatzen dirala esan dau. “Zenbat eta gitxiago egin, hoba danontzat”. Talde horren eretxiz, hareatzak bere onera ekarten dituana natura bera izatea da hoberena.

PSE-EE eta EAJ-PNV taldeek gogoratu dabenez, gune hori Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren babesari buruzko araudiak babesten dau. Jon Sánchez jeltzalearen berbetan, popularren proposamenak “daborduko badakiguna berresten dau, Mundakako olatua daborduko babestuta dagoala, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren barruan dagoalako, eta gune horrek Erabilerea eta Kudeaketea Zuzentzeko Plan bat dauka”. Halanda be, “ez daukagu inongo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

arazorik hori kontserbetako beharra berresteko”, esan dau, herritarrek “moeta guztietako” eretxiak emon eta ingurune horretan egin daitekeanari buruzko “uste desbardinak” izan arren.

ESPAZIO NATURALAK ALKARREN ARTEAN LOTZEA

Saio berean, Bizkaiko Batzar Nagusiek PP taldearen arauz besteko beste proposamen bat onartu dabe, Aldundiak, Bizkaian dagozan hainbat moetatako espazio naturalak “korridore ekologikoen” sare baten bitartez lotu daizan, hasierako oinarri lez Eusko Jaurlaritzak 2005ean egin eban dokumentua hartuz. Batzarretako talde guztiak ekimenaren alde agertu dira, Bizkaiko Ahal Dugu taldea izan ezik, abstenidu egin da eta.

Arturo Aldecoak (PP) esan dau espazio horreek “bizirik jarraitu daikiela korridore ekologikoak badagoz”. Espazio babestuen “loturako sare” horreek barik ingurumeneko politikan “erren egongo ginatekez”, esan dau. EH Bilduk zehaztu dauenez, “azpiegitura handiek aukera hori itxi egiten dabe”.

EAJ-PNV-k Europar Batzordearen txosten bat gogoratu dau. Txosten horrek esaten dau 2002 eta 2010 artean esfortzu handiak egin diran arren, esfortzu horreek ez dirala “nahikoa” izan aniztasun biologikoaren galerea saihesteko. Nazinoarteko hitzarmen batean oinarrituta, Eusko Jaurlaritzari jagoko Bioaniztasunerako Euskal Estrategia prestetea, eta Foru Aldundiari estrategia horretan oinarritutako ekintza plana martxan jartea.

Holan, nazinoarte, estatu eta autonomia mailan eta Bizkaia 21 programan planteautako helburuei behar dan moduko erantzuna emoteko helburuz, joan dan martiaren 17an, Bizkaiko Foru Aldundiak –jeltzaleek adierazo dabenez– “Bizkaiko Bioaniztasuna babesteko, hobetzeko eta kudeetako estratergiari buruzko txostena” egin eta aurkeztu eban. Txostenak, datozen bost urteetan aurrera eroan beharreko ekintzak proponiduten ditu, helburu argiagaz, “bioaniztasunaren galera garbia saihesteko ahaleginak egiteaz gain, hori handitzeko behar egitea”.

BIZKAIKO BALKOIAK ETA BEHATOKIAK

Bizkaiko Batzar Nagusiek PP taldearen arauz besteko beste proposamen bat onartu dabe aho batez. Horren bitartez eskaerea egiten jako Foru Aldundiari Bizkaian dagozan balkoiak eta behatokiak egokitzeko eta garbitzeko eta leku horreetan mahaiak, azalpenak emoten dituen panelak eta seinaleak jarri daizan. Ekimenean PSE-EE taldeak zuzenketa-eske bat sartu dau, ekintza horreek “beti be aurrekontu baliabiderik badago” egin daitezana.

Euzko Abertzaleak taldetik gogoratu danez, PP-k beste proposamen bat aurkeztu eban 2014an, eta aho batez onartu zan. Bertan, instalazino horreei buruzko “azterlana” eskatzen zan. Agindu horretan oinarrituta, Foru Aldundiak, “azaroaren bukaeran amaituta egongo dan” txosten bat eskatu eban, jeltzaleek jakinarazo dabenez. Txosten horretan, egin beharreko esku-hartze posibleak zehaztuko dira, eta horretarako aurrekontu partidea egoten bada, egingo dira.

ESNEAREN SEKTOREARI ETA KURUMINO ASIARRARI BURUZKO AGERRALDIAK



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bukatzeko, batzordeak PP taldearen agerraldi eskari bi jaso ditu, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak esnearen sektoreak Bizkaian bizi dauen egoera eta Kurumino asiarraren izurriteak gaur egun Bizkaian daukan hedadurea azaldu daizan.

Esnearen sektoreari jagokonez, diputatu andreak esan dau “denpora gitxi barru” 176.000 euroko laguntzea argitaratuko dabela, Bizkaiko ustiapenen likideziaren arazoa arintzeko, eta horri, Eusko Jaurlaritzak, kopuru berberagaz, emongo dauen beste bat gehituko jakola. Zenbateko horreek aurton bertan ordainduko dira. “75 euro behi bakotxeko, 100 behirentzat gehienez, hau da, gehienez be 7.500 euroko laguntzea”, zehaztu dauenez.

Unzuetak esan dauenez, sektorea beste Erkidego batzuetan baino “askoz hobeto” dago, Herri Administrazioek egin daberen esfortzueengaitik eta lurraldean kooperatibek egiten daberen egituraketearengaitik eta kudeaketearengaitik. Bizkaian sektore horretan aritzen diran ekoizleen “heren bi” batzen dituan kooperatiba eredu hori sektorearen gorabeheren aurreko “defentsarik onena” da.

Aukera honetaz baliauz, diputatu andreak “kontzientziazinoko mezua” zabaldu dau, Bizkaiko kontsumitzaileek, “gure lurra eta Bizkaiko bioaniztasuna zaintzen daberen gizonen eta andreen” egindako bertako produktuak erosi daiezan”. Diputatu andreak emon dituan datuak kontuan izanda, Bizkaiak “55 milioi litro esne” sortzen ditu. “145 ustiapen” eta “11.071” behi dira, gehienak Enkarterrin, Karrantzako haranean, batez be.

Diputatu andreak jakinarazo dauenez, 2015ean “panorama larria” ikusten da, esnearen kostuaren prezioak behera egin dauelako, EB-ko esne ekoizpenak gora egin dauelako eta Errusiak enbargua jarri dauelako martxan, batez be. Hori dala eta, Bizkaiko ustiapenetan esnearen prezioa “0,28 eta 0,40 euro artean” dabil. Unzuetak adierazo dauenez, ustiapenek bizirik iraun daieren prezio “kritiko onargarria” “0,35 eurokoa” da. Galizian, prezioa, litroko “0,18 eurora” jausi da, esan dau. Egoera larria dan arren, Bizkaian gero eta esne ustiapen gehiago dago. Azken hiru urteetan “gazte barriak” sartu dira sektorean, “2013an bat, 2014an lau eta 2015ean beste bat”.

Bizkaiko Ahal Dugu taldeak eta EH Bilduk adierazo dabenez, sektorearen arazoak “ekoizpen eredu intentsiboan” dagoz. Eredu hori “krisian dago”, kontzentrazino handien aldeko apustua egiten dalako.

Koalizino abertzaleak esan dauenez, “autokritikea” falta da, bere eretxiz “larria” dan eta Espainia EB-an sartu zanetik arazo “estrukturala” bilakatu dan egoeraren aurrean. “Partxe txikiak jarten doguz, ixten diran ustiapenen eta galtzen diran milaka lanpostuen odol jariora jasateko”. Koalizino abertzaleak eskaerea egin dau, banatzaile handiakaz dagoan katea “apurtu” daiten, bestela “ez dagoalako etorkizunik”.

EH Bilduk esan dauenez, sektorea kooperatibetan kontzentretan oinarritu dan tokiko estrategia “okerra” izan da, horrek ez dauelako eraginik izan esnearen prezio zuzena, egokia, lortzeko orduan. Batzarretako Euzko Abertzaleak taldeak hori ez dala egia esan dau, eredu hori dalako Bizkaiko esnearen sektorea beste erkidego batzuetan baino “hobeto” egotea lortu dauena.

KURUMINO ASIARRA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Kurumino asiarraren egoerari jagokonez, Elena Unzuetak adierazo dauenez, Bizkaian lehen aldiz 2012ko apirilean hauteman zan espezie horrek “eten barik hedatzen” jarraitzen dau, kostalde kantauriarrean aurkitzen dituan baldintza ekologikoei esker.

Beste ezer baino lehen, Unzuetak esan dau intsektua ez dala mehatxua gizakiontzat, bioaniztasun autoktonoarentzat baino, erlezaintzarentzat, hain zuzen be. Gizakion artean, kurumino autoktonoen eragin berbera dabe. “Beharbada”, jarri jakon “hiltzaile” ezizen horrek behar baino alarma handiagoa eragin dau espezie horren aurrean eta, hori dala eta, hori argitzea “bidezkoa” iruditu jako.

Foru Jarraipeneko Mahaiak esku artean dituan zifrei jagokonez, aurreko urteetako datuakaz alderatuta, “Bizkaian altuagoak dira”, baina pozik egon behar gara, Gipuzkoan “asko murriztu dalako”. “Vespa velutina” espezie hori Bizkaia baino urte bi lehenago heldu zan Gipuzkoara, Frantziatik. Unzuetak esan dauenez, adituen eretziz, Bizkaian “urtebete eta erdian egoera asko hobetuko da”, baina “ez da guztiz desagertuko”.

Diputatu andreak esan dau jarraipenerako eta kontrolerako neurriakaz jarraituko dabela, espezie horren zainketarako eta desagerpenerako eratu dan estadu mailako batzordearen barruan. Bizkaian “ekitaldi honetan kabi gehiago dagoala” hauteman da, beharrak koordinetan dituan Base Gorriak jaso dituan oharrak kontuan hartzen badoguz, eta jakinarazo dau hilebete honeetan “gorenko mailatan” gagozala, arrak eta erregina barriak irailean eta urrian jaiotzen diralako, eta kabiak itxi eta negura begira babeslekua bilatzen dabelako. Ganera, udazkenean hostoak jausi eta gero kabiak hobeto ikusten dira. Hori guztia dala eta, “barriro be alarmea sortu daiteke biztanleen artean”.

Neurriei jagokonez, Foru Aldundiak Jarraipenerako Mahaiari aktibo eutsiko deutso, eta bertara “eragile gehiago” erakarteko “esfortzua” egingo dau. Herritarrei informazinoa emoteko eta kabiak kentzeko atazetan aritzen diran administrazinoetako beharginei zuzendutako prestakuntzako jarduerakaz aurrera jarraituko da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales piden que la ola de Mundaka sea declarada patrimonio "natural y cultural"

Bilbao, a 7 de octubre de 2015

La comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado hoy, por unanimidad, una proposición no de norma del grupo Popular Vizcaíno para que la ola izquierda de Mundaka y la zona surfera de Urdaibai sean declaradas patrimonio "natural y cultural". El PP pide que las instituciones implicadas, entre las que cita la Diputación, el Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Mundaka y el Patronato de Urdaibai, estudien "la mejor forma legal de proteger" este accidente natural y garanticen "su preservación para las generaciones futuras".

Todos los grupos junteros se han mostrado partidarios, con matices, de proteger la "barra" de Mundaka, lugar de peregrinación de los amantes del surf. Arturo Aldecoa (PP) ha señalado que la preservación de este espacio natural, incluido en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, resulta conveniente por su atractivo para los aficionados al surf, "un deporte moderno que da una imagen muy positiva de nuestra tierra".

El representante popular ha señalado que pese a que se hacen estudios antes de intervenir en determinadas zonas costeras, estas intervenciones a veces tienen consecuencias, como las ocurridas en las playas donostiarras de La Zurriola o La Concha que "desaparecen con las mareas altas". Estas consecuencias se pueden agravar con los propios efectos de la climatología. En el caso de Mundaka, las ciclogénesis y los fuertes vientos y oleajes, han podido afectar negativamente a la ola. "Ya sucedió hace años cuando la ola desapareció por diversos factores", ha señalado. En este sentido, Aldecoa ha abogado por la coordinación interinstitucional como "mejor" medio para preservar este accidente natural.

Por parte de Podemos Bizkaia, sus representantes se han limitado a leer un texto de Mundakako Surf Taldea que ya hicieron público durante las obras que Demarcación de Costas realizó en primavera en la zona para recuperar el arenal de la playa de Laida. Ante estas obras, este colectivo reclamaba la paralización de las obras, ya que –según ellos– "no se habían estudiado sus posibles consecuencias". En su texto, denunciaban "falta de información y falta de estudio de impacto ambiental" y el hecho de que el plan de trabajo se incumpliese al extraer arena a "20 metros de la orilla" cuando se estableció una limitación mínima de "100 metros".

David Lopategi, de EH Bildu, ha señalado que en este espacio existen "fenómenos incontrolables" generados por el cambio climático que producen modificaciones en el estuario. "Cuanto menos se haga mejor para todos". Es partidario de que sea la propia naturaleza la que corrija los arenales.

PSE-EE y PNV han recordado que la zona se encuentra protegida por la normativa de protección de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Según el jeltzale Jon Sánchez, la proposición popular "reafirma lo que ya se sabe, que la ola de Mundaka ya está protegida, al estar incluida en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, espacio que cuenta con un Plan Rector de Uso y de Gestión. Aún así, "no tenemos problemas para reafirmarnos en su preservación", ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dicho, pese a que la ciudadanía opine “de todo” y tenga “diferentes percepciones” sobre lo que se pueda llegar a hacer en la zona.

INTERCONEXIÓN DE ESPACIOS NATURALES

En la misma sesión, las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado otra proposición no de norma del PP para que la Diputación lleve a cabo acciones para interconectar los espacios naturales de diverso tipo existentes en Bizkaia, mediante una red de "corredores ecológicos", tomando como base inicial un documento elaborado por el Gobierno Vasco en 2005. Todos los grupos junteros han apoyado la iniciativa, salvo Podemos Bizkaia que se ha abstenido.

Arturo Aldecoa (PP) ha señalado que estos espacios "pueden pervivir si existen corredores ecológicos". Sin estas “redes de ligazón” de espacios protegidos, “estaríamos cojos” en la política medioambiental, ha dicho. EH Bildu ha precisado que esta posibilidad de abrir corredores verdes “está cerrada por las grandes infraestructuras”.

PNV ha recordado un informe de la Comisión Europea que dice que, pese a los esfuerzos hechos entre 2002 y 2010, éstos nos han sido “suficientes” para evitar la pérdida de diversidad biológica. En virtud de un convenio internacional, corresponde al Gobierno Vasco la elaboración de la Estrategia Vasca para la Biodiversidad, y a la Diputación poner en marcha el plan de acción fundamentado en dicha estrategia.

Así, al objeto de dar cumplida respuesta a los objetivos planteados a nivel internacional, estatal y autonómico, y en el Programa Bizkaia 21, el pasado 17 de marzo, la Diputación Foral de Bizkaia elaboró y presentó -según los jeltzales- "el informe sobre la estrategia de protección, mejora y gestión de la Biodiversidad en Bizkaia". El informe propone las acciones a desarrollar durante los próximos cinco años, con el claro objetivo de, "además de esforzarse en evitar la pérdida neta de la biodiversidad, trabajar en favor de incrementarla".

BALCONES Y MIRADORES DE BIZKAIA

Por unanimidad, la Cámara vizcaína ha aprobado otra proposición no de norma del grupo Popular a través de la cual se insta al Ejecutivo foral a promover el acondicionamiento y limpieza de los balcones y miradores existentes en Bizkaia, y a instalar mesas, paneles explicativos y señalización. La iniciativa ha incorporado una corrección de PNV y PSE-EE a través de una enmienda conjunta para que estas acciones se hagan “siempre y cuando exista disponibilidad presupuestaria.”

Desde las filas del grupo Nacionalistas Vascos se ha recordado que el PP ya presentó en el año 2014 otra proposición, que fue acordada por unanimidad, en la que se pedía un “estudio” sobre estas instalaciones. En base a este mandato, la Diputación encargó un informe que “estará concluido a finales de noviembre” han advertido desde las filas jeltzales. En este informe, se detallarán posibles intervenciones que estarán pendientes de contar con partida presupuestaria.

COMPARECENCIAS SOBRE EL SECTOR LACTEO Y LA AVISPA ASIÁTICA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por último, la comisión ha sustanciado dos peticiones de comparecencia del PP para que la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, explicara la situación del sector lácteo en Bizkaia y la extensión por el territorio de la avispa asiática.

Respecto al sector lácteo, la diputada ha dicho que “en breve” publicarán una ayuda de 176.000 euros destinada a aliviar el problema de liquidez de las explotaciones vizcaínas, que se sumará a otra de la misma cuantía del Gobierno Vasco. Estas cuantías se abonarán durante este mismo ejercicio. “75 euros por cada vaca con un máximo de 100 vacas, o 7.500 euros de ayuda”, ha concretado.

Unzueta ha sostenido que el sector está “mucho mejor” que en otras Comunidades por el esfuerzo de las Administraciones públicas y por la vertebración y la gestión que en el territorio realizan las cooperativas. Este modelo, el de las cooperativas, que aglutinan “dos tercios” de los productores del sector lácteo vizcaíno, es la “mejor defensa” frente a los vaivenes del sector.

La diputada ha aprovechado para lanzar un “mensaje de concienciación” con el propósito de que los consumidores vizcaínos se decanten por la compra de productos locales elaborados “por hombres y mujeres que cuidan de nuestra tierra y de la biodiversidad de Bizkaia”. Según los datos ofrecidos por la diputada, Bizkaia produce “55 millones de litros de leche”. Son “145 explotaciones” y “11.071 reses”, la mayoría concentradas en Encartaciones, especialmente en el valle de Karrantza.

La diputada ha avisado que en 2015 se vislumbra “un panorama grave”, ya que el precio del coste de la leche ha sufrido una rebaja, principalmente producido por el incremento de la producción láctea en la UE y por el embargo ruso, lo que ha hecho que el precio de la leche oscile, en las explotaciones vizcaínas, entre los “0,28 y los 0,40 euros”. Unzueta ha marcado en “0,35 euros” el precio “crítico asumible” para la supervivencia de las explotaciones, precio que en Galicia, ha llegado a desplomarse hasta los “0,18 euros” por litro, avisa. Pese a esta situación, las explotaciones lácteas siguen creciendo en Bizkaia. En los tres últimos años, “nuevos jóvenes” se han incorporado al sector, “uno en 2013, cuatro en 2014 y otro en 2015”.

Por su parte, Podemos Bizkaia y EH Bildu han puesto el foco en que las penurias del sector se encuentran en el “modelo productivo intensivo”, el cual “está en crisis”, al apostarse por las grandes concentraciones, frente al pequeño ganadero.

La coalición abertzale se ha quejado de la falta de “autocrítica” por una situación que consideran “grave” y que tiene una problemática “estructural” desde que España entró en la UE. “Ponemos pequeños parches para seguir soportando la sangría de explotaciones que cierran y miles de puestos de trabajo que se pierden”. La coalición abertzale ha pedido que se “rompa” la cadena con las grandes distribuidoras, porque, de lo contrario, “no tenemos futuro”.

EH Bildu ha señalado que la estrategia local en base a la concentración del sector en cooperativas, ha resultado “errónea”, ya que esto no ha incidido en el precio justo de la leche, algo que ha negado el grupo juntero Nacionalistas Vascos que, precisamente, cree que este modelo ha permitido que el sector se encuentre “mejor” respecto a otras comunidades.

AVISPA ASIÁTICA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En cuanto a la situación de la avispa asiática, Elena Unzueta, ha señalado que esta especie, que se detectó por primera vez en Bizkaia en abril de 2012, continúa su “expansión incesante” gracias a las condiciones ecológicas que encuentra en la cornisa cantábrica.

Unzueta ha comenzado aclarando que el insecto no es una amenaza para la especie humana sino para la biodiversidad autóctona y, en concreto, para la apicultura. En la especie humana ejerce el mismo efecto e impacto que las avispas autóctonas. “Quizás” el calificativo de “asesina” ha provocado una alarma desproporcionada respecto a esta especie, por lo que ha considerado “oportuno” realizar esta aclaración.

En cuanto a las cifras que maneja la Mesa de Seguimiento foral, en comparación con los datos de años anteriores, “sí son más elevados en Bizkaia”, pero hay que felicitar por la “tendencia a la baja muy considerable” experimentada en Gipuzkoa en donde la “vespa velutina” entró dos años antes desde Francia. Los expertos sostienen –según Unzueta- que, en Bizkaia, “en año y medio la situación mejorará notablemente”, si bien “no va a ser erradicada por completo”.

La diputada ha señalado que proseguirán con las medidas de seguimiento y control en el marco de la comisión estatal creada para su vigilancia y erradicación. En Bizkaia, se ha detectado un “incremento de nidos durante este curso” según los avisos recibidos por Base Gorria que es desde donde se coordina el trabajo, y ha advertido que durante estos meses estamos en “pleno apogeo”, ya que entre los meses de septiembre y octubre nacen los machos y las nuevas reinas, que abandonan el nido para buscar refugio de cara al invierno. Además, ahora son visibles nidos tras la caída de las hojas en otoño, circunstancias “que puede desatar nuevamente una alarma entre la población”.

En cuanto a las medidas, la Diputación mantendrá activa la Mesa de Seguimiento y hará “un esfuerzo” por atraer a ella a “más agentes”, al tiempo que mantendrá las actividades de información ciudadana y de formación para el personal de las administraciones que actúa en labores de retirada de nidos.